

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### EKONOMIA SUSTAPENAREN, ENPLEGUAREN, MERKATARITZAREN ETA TURISMOAREN SAILA

**“Gasteizko udalerriko merkataritzaren, ostalaritzaren eta ile-apaindegien alorreko enpresa txikien eraldaketa digitalerako laguntzak —2022. urtea—” udal-programaren deialdia eta berriazko oinarri arautzaileak onestea**

2021eko urriaren 1ean onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak Gasteizko Udalaren 2022ko dirulaguntza-deialdiak arautuko dituzten oinarri orokorrak. 2021eko urriaren 29ko ALHAOn —124. zk.— argitaratu ziren oinarri orokor horiek, eta Udalaren webgunean kontsulta daitezke —[www.vitoria-gasteiz.org](http://www.vitoria-gasteiz.org)—, baita herritarrei laguntzeko bulegoetan ere. Berriazko deialdi honek aurkeztu nahi duten pertsona eta entitateek oinarri orokor horietara jo beharko dute jakiteko non eta nola aurkeztu eskabideak, zein betekizun eta betebeharrak izango dituzten eskatzaileek, nola justifikatu behar dituzten dirulaguntzak, zein formulario baliatu behar dituzten eta abar.

2022ko martxoaren 1ean egindako aparteko eta premiazko bilkuran onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak “Gasteizko udalerriko merkataritzaren, ostalaritzaren eta ile-apaindegien alorreko enpresa txikien eraldaketa digitalerako laguntzak —2022. urtea—” udal-programaren deialdia eta berriazko oinarri arautzaileak. Horrenbestez, oinarri horiek argitara ematen dira, denak jakinaren gainean egon daitezten:

#### **1. oinarria. Dirulaguntzen ildoak**

Merkataritzaren, ostalaritzaren eta ile-apaindegien alorreko enpresa txikien eraldaketa digitalerako laguntzak.

#### **2. oinarria. Deialdiaren xedea**

Gasteizko udalerrian —lehiakortasuna hobetzeko tresna gisa— txikizkako merkataritzaren, ostalaritzaren eta ile-apaindegien alorreko enpresa txikien eraldaketa digitala sustatu eta babesteko laguntza ekonomikoak emateko baldintzak arautzea dute xede oinarri hauek —norgehiagoka baliatuko da horretarako—.

Itzuli beharrik gabeko dirulaguntzak izango dira laguntza ekonomiko horiek.

#### **3. oinarria. Enpresa eta pertsona onuradunen betebeharrak**

Merkataritza-jardueraren bat duten pertsona fisiko nahiz juridikoak izan ahalko dira oinarri hauetan arautzen diren laguntzen onuradun, baldin eta honako baldintza hauek betetzen badi-tuzte dirulaguntza-eskabidea egiten duten unetik:

1. 50 langile baino gutxiago izatea.
2. Urteko negozio-bolumena edo balantze orokorra 10 milioi eurotik gorakoa ez izatea.
3. Aurreko baldintzak betetzen ez dituzten enpresek ehuneko 25eko edo hortik gorako partaidetza edo lotura ez izatea bertan.
4. Beren merkataritza-jarduera Gasteizko udalerrian kokatutako lokal batean gauzatzea —menpeko toki-erakundeak eta industrialdeak barne. Ez da beharrezkoa izango eskabidea egiten duten pertsona edo enpresek helbidea Gasteizko udalerrian edukitzea.

5. Lur-arrasean kokatuta egon beharko du lokalak, erakusleioa eduki, eta jendearentzat irekita egon, ohiko merkataritza-ordutegian. Azoketako nahiz merkataritza-zentro edo -galeria pribatuetako establezimenduak ere aintzat hartu ahal izango dira. Ez dira finantzatuko zerbitzuguneetan (gasolindegietan) kokatutako establezimenduak.

6. Ekonomia Jardueren gaineko Zergan alta emanda egon beharko du enpresak, eta eskabidean adierazten diren lokaletan merkataritza-jarduera eduki, behintzat dirulaguntza eskatzen duenetik.

Enpresaren jarduera nagusia Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren multzo edo epigrafe hauetakoren batekoa izatea:

– 64: Janari, edari eta tabako salerosketa, txikizka, establezimendu iraunkorretan (salbu 646: Tabako gaien eta erretzaileentzako artikuluen salerosketa, txikizka, eta 647.5: Janari eta edarien horniketa — tabakoa salbu —, makina automatikoen bitartez).

– 65: Janariez bestelako produktuen salerosketa, txikizka, establezimendu iraunkorretan (salbu: 652.1: Farmaziak: botika eta osasun eta higiene produktuen salerosketa, txikizka; 654.3: Airetiko ibilgailuen salerosketa, txikizka; 654.4: Ibai eta itsasoko ibilgailuena; 654.5: Makinena; 654.6: Mota guztietako ibilgailuetarako gurgil-azalen, banden edo aire-ganberena, eta 655: Erregai eta lubrifikatzaileen salerosketa, txikizka).

– 662.2: Era guztietako salgaien salerosketa, txikizka.

– 671, 672 eta 673: Elikadura-zerbitzua, jatetxe, kafetegi eta tabernetan.

– 676: Elikadura-zerbitzua txokolategi, izozki-denda eta hortxata-dendetan.

– 677.9: Jatetxeei dagozkien beste elikadura-zerbitzu batzuk.

– 972: Ile-apaindegiak eta apaindegiak.

7. Aurreko puntuan adierazitakoa gorabehera, ez zaie dirulaguntzarik emango ekonomia-jarduera bakarra asteburuetakoa gaueko ostalaritza duten enpresei, salbu eta egiten diren inbertsioen helburua gaueko ostalaritza-jarduera eguneko ostalaritza-jarduera bihurtzea bada. Era berean, ez zaie dirulaguntzarik emango beren jarduera kolektibitateei catering-zerbitzuak eskaintzea duten enpresei.

Bi betekizun horiek ofizioz egiaztatu ahal izango ditu Udalak, behar diren ikuskapenak establezimenduetan eginez.

8. Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren bi epigrafe edo gehiagotan alta emanda badago enpresa, onuraduntzat joko da baldin eta jarduera nagusia diruz lagundu daitezkeen multzo edo epigrafe baten barruan badago eta egiten dituen ekintzak jarduera horri badagozkio. Ekonomia Jardueren gaineko Zergan adierazitako azalaren banaketa kontuan hartuz zehaztuko da jarduera nagusia, hau da, azalera erabilgarriak handiena duen hura joko da jarduera nagusizat.

9. Betebehar fiskalak, Gizarte Segurantzarekikoak, Arabako Foru Aldundiarekikoak eta Gasteizko Udalarekikoak beteta edukitzea. Eskabidea aurkezten denean ez ezik, dirulaguntza-eskabidea tramitatzeko prozesu osoan ere bete beharko da betebehar hori (dirulaguntza ematen, obligazioa onartzen nahiz ordaintzen denean).

10. Nolanahi ere, baztertuta geratzen dira sozietate publikoak eta zuzenbide publikoko entitateak, baita irabazi-asmorik gabeko entitateak eta elkarte- edo lanbide-jarduerak egiten dituztenak ere (elkarteak, lanbide-elkargoak eta abar).

#### **4. oinarria. Diruz lagundu daitezkeen ekintzak**

2021eko maiatzaren 29tik 2022ko apirilaren 8ra bitartean egiten diren inbertsioek jaso ahal izango dute dirulaguntza.

Behar bezala jaulkitako fakturen bitartez egiaztatu beharko dira egindako inbertsioak, gorago adierazitako datetan, eta horien ordainketa, berriz, Gasteizko Udalarari dagozkien ordainagiriak aurkeztuz (ikus 15. oinarria), 2022ko ekainaren 8ra bitartean (egun hori barne). 2022ko ekainaren 8a baino lehen behar bezala justifikatuta dauden ordainketek bakarrik jaso ahal izango dute dirulaguntza.

Laguntza-lerro horretan, enpresaren eraldaketa digitalarekin zerikusia duten jarduketara hauek jaso ahal izango da dirulaguntza:

A. Oinarrizko ekipamendu informatikoak eta horien periferikoak —inbertsioa egiten den lokal bakoitzeko ekipamendu informatiko bakarra joko da diruz lagundu daitekeen inbertsioztat, eta periferiko mota bakoitzeko bana—.

B. Enpresaren jarduera nagusiarekin zerikusia duten kudeaketa-tresnak edota softwarea.

Horretan sartzen da enpresa-kudeaketa hobetzeko programa eta sistema berriak erostea, baita enpresaren jarduera nagusia automatizatzen edo hobetzen lagunduko duen programak erostea ere.

Horrez gain, kategoria honetan sartzen dira saltokiko terminalak, kudeaketa-softwarea integratuta duten balantza elektronikoak eta enpresaren kudeaketa hobetzeko berariazko enpresa-softwarea integratzen duten antzeko ekipamenduak.

C. Enpresaren webgune korporatiboa garatzea.

Horretan sartzen da webgune korporatibo berria garatzea, baita enpresaren webgunea gailu mugikorretara egokitzea ere.

Webgune berriek datu-transferentziarako https protokoloa eduki beharko dute, web-analisirako tresna bat instalatuta eduki, eta gailu mugikorretarako egokituta egon.

Webgunearen bitartez saltzeko aukera eskaintzen duten webguneek ordainketa-pasabidea eduki beharko dute.

Webguneagatik dirulaguntzarik jasotzekotan, aktibo edo erabilgarri egon beharko dute dirulaguntza-eskabidea egiten denerako.

Webgune korporatiboak ez badu online salmentarik eskaintzen, gehienez 1.200,00 euroko inbertsioa lagunduko da diruz.

D. Marketin digitala.

Horretan sartzen dira enpresaren marketin digitalaren estrategiaren diseinua, enpresaren jarduera nagusiarekin lotutako aplikazioen garapena eta sare sozialen dinamizazioan egindako inbertsioa, posta elektronikoaren bidezko marketina, entzutearen kudeaketa online eta katalogo edo karta digitalak lantzea.

E. Komunikazioarekin edo saltokian erosketa-prozesu interaktiboa sortzearekin lotutako tresna eta ekipamenduak, eta digitalizazioaren bitartez produktua pertsonalizatzearekin lotutakoak.

F. Geolokalizazioarekin edo datu masiboekin lotutako aplikazio eta ekipamenduak, konektagarritasunean eta kontsumo-ereduen iragarpenean zentratuak.

Zerbitzu eta produktuen hornitzaile diren enpresek —gorago zehaztu direnak— irabazi-asmoa duten enpresak izan beharko dute, eta ematen duten zerbitzuak bat etorri beharko du beren jarduerarekin, Ekonomia Jardueren gaineko Zergan duten egoeraren arabera. Ofizios egiaztatu ahal izango du hori Gasteizko Udalak.

Aktibo finkoen erosketaren kasuan, dirulaguntzarik jasotzekotan berriak izan beharko dute, enpresan gutxienez bi urtez egongo direnak —erosten direnetik, hots, fakturan ageri den data-tik—, eta hirugarren oinarrian adierazitakoa betetzen duen merkataritza-lokalen batean instalatuak.

Aurkezten den proiektuak diruz lagundu daitekeen gutxienez 300,00 euroko inbertsioa izan beharko du.

#### **5. oinarria. Dirulaguntzaren xede izango ez direnak**

- Hedabide edo kanpaina digitaletako publizitate-gastuak.
- Langileak kontratatu edo prestatzeko gastuak, 4. oinarrian adierazten diren aktiboak eskuratzearekin zuzeneko lotura dutenak salbu.
- Telefono mugikorrak, telebistak eta soinu- edo irudi-irakurgailuak erostea.
- Garraio-kostuak, aseguruak, administrazio-baimen eta -lizentziengatik eta antzekoengatik ordaindu beharreko tasak eta bestelako zerga edo kanonak.
- Diruz lagun daitezkeen ekintzei lotutako edo enpresaren jarduera iraunkorra edo aldizkako osatzen duten mantentze-gastuak: piezak konpontzea edo ordezkatzea, lehendik zeuden lizentziak mantentzea, domeinuak berritzea, ostatatzea, datuak hodeian biltegitratzea eta antzekoak.
- Enpresaren jardueraren zuzenean zerikusirik ez duen oinarritzko softwarea, hala nola, sistema eragileak do ofimatika-paketeak.
- Erakusteko eta probatzeko gauzak, eta gerora salgai jar daitezkeenak.
- Finantza-errentamendu edo antzeko formulen bidez egindako inbertsioak.
- Deialdiaren laugarren oinarrian espresuki diruz lagundu daitekeen kontzeptutzat jasota ez dagoen beste edozer.
- Diruz lagundu daitekeen edozein kontzeptu, baldin eta hornitzaileak dirulaguntza eskatzen duen enpresarekin lotura badu. "Lotura duen enpresa" kontzeptuari dagokionez, Sozietateen gaineko Zergaren abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 42.3 artikuluko definizioa aintzat hartuko da.

#### **6. oinarria. Baliabide ekonomikoak**

2022ko ekitaldiko udal-aurrekontuetako 2022 / 08 22 4314.489.64 "Merkataritza eta ostalaritzarako laguntzak" partidaren kontura finantzatuko dira deialdi honetan aurreikusten diren dirulaguntzak. 120.000,00 eurokoa da partidaren zuzkidura.

Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariaren erabakia dela medio, eta laguntza-deialdia ebatzi aurretik, zuzkidura hori handitzerik izango da —Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorren 58. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz—, baldin eta udal sail horrek kudeatzen dituen laguntza-deialdietakoren batean soberako krediturik badago.

#### **7. oinarria. Indarrean jartzea eta eskabideak aurkeztea**

ALHAOn argitaratzen diren egunaren biharamunean jarriko dira indarrean oinarri hauek —aldeztatik Dirulaguntzen Datu-base Nazionalen laburpen-iragarkia argitaratuko da—.

2022ko martxoaren 21ean hasiko da eskabideak aurkezteko epea, eta apirilaren 8an bukatuko, biak barne.

Enpresa bakoitzeko eskabide bakarra aurkeztu ahal izango da urtean.

#### **8. oinarria. Dirulaguntzak emateko prozedura**

Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailari dagokio oinarri hauetan arautzen diren laguntzak kudeatzea. Hautatze- eta jarraipen-batzorde bat eratu da horretarako, Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zuzendariak, Enpresen Zerbitzuko buruak eta Merkataritza Zerbitzuko buruak osatua,

zein arduratuko baita aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatzeaz, Merkataritza Zerbitzuko teknikariek txostena egin ondoren.

Norgehiagoka-prozeduraren bidez emango dira laguntzak, eta, hortaz, aurkeztu diren proiektuen arteko alderaketa egingo da.

Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariaren ebazpenaren bidez eman edo ukatuko dira laguntzak, hautatze- eta jarraipen-batzordeak proposamena aurkeztu ondoren.

### **9. oinarria. Ebatzi eta jakinarazteko epea**

Gehienez sei hilabeteko epean ebatziko da prozedura, deialdia ALHAOn argitaratzen den egunetik. Epe hori berariazko ebazpenik eman gabe igaroz gero, dirulaguntza-eskabidea ezetsizat joko da.

ALHAOn eta Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoan argitaratuko dira dirulaguntzak eman nahiz ukatzeko ebazpenak, baita horiek izan litzaketan aldakuntzak eta prozedurako gainerako egintzak ere. ALHAOko argitalpen horrek urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45.4 artikuluan xedatutakoari jarraituz egindako jakinarazpenaren ondorio guztiak izango ditu, Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Legean xedatutakoa aintzat hartuta.

Dirulaguntzak eman edo ukatzeko erabakiak agortu egingo du administrazio-bidea, eta berorren kontra zuzenean aurkeztu ahal izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsioa Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, bi hilabeteko epean, jakinarazten den egunaren biharamunetik.

Nolanahi ere, aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, aldeztu aurretik aukerako berraztertze errekurtsioa aurkeztu daiteke erabakia hartu duen organoaren aurrean, hilabeteko epean, jakinarazten den egunaren biharamunetik —kasu horretan, ezingo da administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkeztu hori berariaz edo ustez ebatzi arte—. Ondoren, berariazko ebazpena ematen bada, administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkeztu ahal izango da bi hilabeteko epean, egintza jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik; bestela, edozein unetan aurkeztu ahal izango da, berariazko araudiaren arabera administrazioaren isiltasunaren ondorioak sortzen diren egunaren biharamunetik aurrera.

### **10. oinarria. Balioespen-irizpideak**

Aurkeztu diren proiektuak irizpide hauen arabera balioetsiko dira:

1. Eraldaketa digitalerako proiektuaren kalitatea: 50 puntu arte.

A. Eraldaketa digitalerako proiektuaren garapen-maila: 10 puntu arte.

B. Proiektuaren helburuen zer-nolakoak eta definizio-maila: 10 puntu arte.

C. Egindako inbertsioa, aurkeztutako proiektuaren koherentzia eta enpresaren arlo desberdinetan izango duen benetako eragina: 20 puntu arte.

D. Egindako proiektuak enpresaren lehiakortasunean izan lezakeen eragina: 5 puntu arte.

E. Enpresaren inplikazio-maila, digitalizazio-prozesuan: 5 puntu arte.

Aurkeztutako proiektua balioetsiko da, oroitidazki tekniko (II. eta III. eranskinak) eta fakturak aintzat hartuta.

2. Enpresa eskatzailearen antzintasuna (deialdi hau ALHAOn argitaratzen den egunera arte) (Ekonomia Jardueren gaineko Zergako datuen arabera): 20 puntura arte.

— 10 urtetik gorako antzintasuna: 10 puntu.

— 20 urtetik gorako antzintasuna: 20 puntu.

Oro har, enpresa eskatzaileak diruz lagun daitekeen jarduera ekonomiko bera gauzatzen Gasteizko merkataritza-lokalen batean etenik gabe emandako denbora balioetsiko da antzinasun gisa.

Jarduera Gasteizen kokatutako lokal batetik beste batera aldatu bada, enpresa edo pertsona eskatzaileak Ekonomia Jardueren gaineko Zergan hasierako lokalean izan duen antzinasuna hartu ahal izango da kontuan, baldin eta jarduerak etenik izan ez badu.

Enpresa eskualdatu bada, lehenago zegoen enpresaren antzinasuna kontuan hartu ahal izango da, baldin eta eskualdatzea behar bezala justifikatzen bada eta hasierako enpresaren jarduerari eutsi bazaio.

Enpresa eskatzailearen forma juridikoa aldatu bada, hasierako enpresaren antzinasuna kontuan hartu ahal izango da, baldin eta enpresa edo pertsona eskatzaileak gutxienez ehuneko 33,3ko partaidetza egiaztatzen badu, enpresa batean nahiz bestean.

3. 2019, 2020 edo 2021ean Eusko Jaurlaritzak eta Euskadiko Merkataritza eta Industria Gainerak bultzatutako Euscommerce programan parte hartu duen enpresa —II. eranskineko oroitidazkian adierazi beharko da—: 10 puntu.

4. 10 langile baino gutxiago dituen enpresa (langileen azken hilabeteko TC2 agirien edo zerrenda izendunaren arabera): 10 puntu arte.

— 5 langile baino gutxiago: 10 puntu.

— 5 eta 9 langile artean: 5 puntu.

5. Merkataritza-sozietateen partaidetzarik ez duen enpresa (eratze-eskrituren nahiz geroko aldakuntza-eskrituren arabera): 10 puntu.

#### **11. oinarria. Proiektuak balioestea eta dirulaguntza kalkulatzeko**

Aurkeztutako proiektuen balioespina egingo da, 10. oinarrian adierazitako irizpideen arabera.

Proiektu guztiak balioetsi ondoren, honela kalkulatu da dirulaguntzaren portzentajea: 100 puntu lortzen dutenek dirulaguntzaren gehieneko portzentajea lortu ahal izango dute (ehuneko 70). Aitzitik, guztira 0 puntu lortzen dutenek dirulaguntzaren gutxieneko portzentajea lortuko dute (ehuneko 40). Puntuaziorik handienaren eta gutxienekoaren arteko gainerako proiektuei proportzio lineala aplikatuko zaie dirulaguntzaren ehunekoa kalkulatzeko, eta balorazioan lortutako puntu bakoitzeko ehuneko 0,30 osagarria gehituko da.

10. oinarrian adierazitako irizpideak aintzat harturik balioesten direlarik guztira lortzen dituzten puntuazioen arabera ordenatuko dira dirulaguntza jaso lezaketen proiektuak.

Guztira lortutako puntuazio horren arabera ezartzen den hurrenkerari jarraituz emango dira dirulaguntzak, harik eta erabilgarri dagoen aurrekontu-kreditua agortu arte. Berdinketa egokitzuz gero, eta puntuazio bera duten eskabide guztiei erantzuteko aski aurrekontu-krediturik ez badago, 10. oinarriko 1. atalean —eraldaketa digitalerako proiektuaren kalitatea— lortutako puntuazioa hartuko da aintzat bata edo bestea lehenesteko. Berdinketak jarraituz gero, 10. oinarriko 2. atalean (enpresa eskatzailearen antzinasuna) lortutako puntuazioa hartuko da aintzat.

Baldin eta geratzen den saldoa ez bada aski baliagarri dagoen kreditua agortzen duen dirulaguntza ordaintzeko, geratzen den kreditua ordainduko zaio horri.

Enpresa onuradun eta urte bakoitzeko 5.000,00 euroko dirulaguntza emango da gehienez.

#### **12. oinarria. Ordaintzeko modua**

Dena batera ordainduko da laguntza, deialdia ebatzi ondoren, eta 15. oinarrian adierazitako moduan justifikatu ondoren.

**13. oinarria. Pertsona edo enpresa onuradunen betebeharrak**

Laguntza jasotzen duten enpresa edo pertsonak betebeharrak hauek izango dituzte:

1. Udalaren egiaztatze-ekintzen mende jartzea, baita bertako Kontu-hartzaitza Nagusiari dagozkion finantza-kontrolerako ekintzen eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren arauetan aurreikusitako mende ere.

2. Udal laguntza honetarako aurkeztutako gastu beretarako bestelako dirulaguntza edo laguntzarik jasoz gero, Udalari jakinaraztea. Gasteizko Udalak emandako dirulaguntzari uko egiteko eskabidea aurkeztu beharko du enpresa onuradunak 10 egun balioduneko epean, beste administrazioak dirulaguntza ematen dioneko ebazpena jakinarazten dion egunaren biharamunetik.

3. Dirulaguntza emateko orduan kontuan izandako edozein zirkunstantzia objektibo nahiz subjektibo aldatuz gero, Udalari jakinaraztea.

4. Laguntza-eskabidea ulertu eta ebaluatzeko beharrezkotzat jotzen den informazio eta agiri osagarri oro Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailaren eskura jartzea.

5. Dirulaguntza eman ondoren, norako eman den, establezimendu horretan bideratzea jarduera ekonomikoa gutxienez bi urtez. Adierazitako epe hori igaro aurretik ixten bada establezimendua, enpresa onuradunak jakinarazi egin beharko dio Udalari, eta emandako dirulaguntzaren zati bat itzuli, jarduera bertan behera geratzen den egunetik bi urteko epe hori (dirulaguntza eman zen egunetik) betetzeko falta den denborarekiko proportzioan. Salbuespen gisa, ez da jasotako dirulaguntza itzultzeko eskatuko, eman zenetik bi urte igaro ez badira ere, titularrak gaixotasun larria duelako edo hil delako ixten bada negozioa.

Jarduera Gasteizko udalerrian kokatutako beste lokal batera aldatzen bada, baloratu egingo da jardueraren lokal berrian diruz lagundutako inbertsioei eusten zaien, eta jarduera lekuz aldatzen den egunean bi urteko jarduera osatzeko falta den denbora-tartea (dirulaguntza eman zen egunetik) kontuan hartuko da. Irizpide horiek oinarri harturik, enpresa onuradunak itzuli beharko duen dirulaguntzaren zati proportzionala kalkulatu da.

**14. oinarria. Bestelako laguntza eta dirulaguntzekiko bateragarritasuna**

Deialdi honetan aurreikusitako laguntzak bateragarri izango dira helburu berarekin Estatuko edo Europar Batasuneko edozein administrazio edo entitate publiko nahiz pribatuk edo nazioarteko edozein erakundek emandako bestelako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera eta baliabideekin.

Nolanahi ere, eskuratzen diren dirulaguntzen baturak ezingo du gainditu dena delako jardueraren kostu garbia, ez berak bakarrik, ez jasotzen den bestelako edozein dirulaguntza, laguntza edo baliabideekin batera.

Muga horretara iritsiz gero, deialdi honetan emandako laguntza txikitu egingo da, soberako zenbatekoan.

**15. oinarria. Nahitaezko agiriak**

Agiri hauek erantsi beharko zaizkie dirulaguntza-eskabideei:

1. Pertsona edo enpresa eskatzaileari dagokionez:

— Eskabide-orria eta zinpeko aitortpena (I. eranskina).

— Pertsona fisikoen kasuan: nortasun-agiriaren kopia.

– Pertsona juridikoek, hauen kopiak:

• IFZ.

• Enpresaren eratzte-eskriturak nahiz geroko aldakuntza-eskriturak, enpresaren ordezkariari eta helbide sozialari eragiten dietelarik.

• Ordezkaritza-ahalmenak.

• Ordezkaritza-ahalmena duen pertsonaren nortasun-agiria.

– Soldatapeko langilerik ez badu, azken hilabeteko autonomo-ordainketaren agiria eta enpresaburu gisa izena emanda ez egotearen egiaztatzea, edo, bestela, kotizazio-kode bateko lan-bizitzaren txostena.

– Soldatapeko langilerik badu: TC2 edo azken hilabeteko langileen zerrenda izenduna, Gizarte Segurantzak jaulkia.

2. Proiektuari dagokionez:

– Proiektuaren oroitidazkia, II. eta III. eranskinen arabera. Eusko Jaurlaritzak eta Euskadiko Merkataritza eta Industria Ganberak bultzatutako Euscommerce programaren azken hiru edizioetakoren batean parte hartu duten enpresek oroitidazki horretan adierazi beharko dute. Gerora, ofizioz egiaztatuko du hori Gasteizko Udalak.

3. Inbertsioen justifikazioari eta ordainketari dagokienez:

– Fakturen kopiak.

– Fakturen ordainketaren egiaztapenak: ez da dirutan egindako ordainketen egiaztapenak onartuko, ezta enpresa hornitzaileen kobrantza-egiaztapenak ere, salbu eta hornitzaile beraren faktura bat edo faktura multzo bat bada, zeinen zenbatekoa, guztira, ordainketak egiteko unean indarrean dagoen lege-mugatik beherakoa den, eta haietan ordaintzeko beste modurik adierazten ez bada.

Gainerako kasuetan, ordainketaren banku-egiaztapenak aurkeztu beharko dira. Ez da onartuko banku-egiaztapenak baldin eta enpresa eskatzaileak hornitzaileari faktura ordaindu diola argi eta garbi gera dadin nahikoa daturik jasotzen ez bada. Oro har, ez dira egiaztapenak gisa onartuko internet bidez eskuratutakoak, banku-erakundeak balioztatuta edo zigilatuta ez badaude.

Ordainketa-egiaztapenak aurkezteko epea 2022ko ekainaren 8an bukatuko da.

Gasteizko Udalarekiko zerga-betebeharrak betetzeari dagokionean, ofizioz begiratuko da pertsona edo enpresa eskatzailea egunean dagoen.

Eskabidea aurkezteak Gasteizko Udalarik zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzeari buruzko ziurtagiriak zuzenean eskatzeko baimena ematea dakar berekin (I. eranskina). Hala ere, enpresa eskatzaileak berariaz ukatu ahal izango du baimen hori. Horrela bada, Arabako Foru Aldundiarekiko eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiarekiko betebeharrak beteta dituela egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztu beharko du.

Enpresa eskatzaileak ez badu esleitua Gizarte Segurantzaren sistemako inongo erregimeneko kotizazio-konturik, bertako bazkide guztiek egon beharko dute egunean Gizarte Segurantzaren.

## 16. oinarria. Akatsak zuzentzea

Dirulaguntza-eskabideari ez bazaizkio deialdian galdatutako agiriak eransten, hamar eguneko epea emango zaie eskatzaileei falta zaizkien agiriak aurkezteko (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikulua ildotik), eta halaber ohartaraziko hala egin ezean eskabidea bertan behera utzitzat joko dela. Jakinarazpenak, nagusiki, posta elektronikoz egingo dira —jaso izanaren egiaztapenarekin—, eskabidean ageri den helbidean.



**17. oinarria. Datu pertsonalen tratamendua**

Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Legea Organikoan xedatutakoaren arabera egingo da datu pertsonalen tratamendua, orobat aintzat hartuz Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Araudia, datuen tratamenduari eta datu horien zirkulazio libreari dagokionez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa.

Vitoria-Gasteizen, 2022ko martxoaren 1ean

*Administrazio Zerbitzuko burua*  
**IGNACIO CEPEDA CRESPO**

**I. eranskina**

Laguntza-eskabidea eta zinpeko aitortpena: <https://www.vitoria-gasteiz.org/docs/wb021/contenidosEstaticos/adjuntos/es/88/06/88806.pdf>.

Oroitidazkia

**II. eranskina**

Proiektuaren oroitidazki kualitatiboa: <https://www.vitoria-gasteiz.org/docs/wb021/contenidosEstaticos/adjuntos/es/88/07/88807.pdf>.

**III. Eranskina**

Fakturen zerrenda: <https://www.vitoria-gasteiz.org/docs/wb021/contenidosEstaticos/adjuntos/es/88/08/88808.pdf>.